

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL HERRIKO GOI MAILAKO MUSIKA IKASTEGIA (MUSIKENE) FUNDAZIO PRIBATUAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKOA, 2009.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak egindako eskariari jarraiki, Euskal Herriko Goi mailako Musika Ikastegiaren (Musikene) Fundazio Pribatuaren 2009ko ekitaldiaren ekonomia-finantza kudeaketaren fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Txostenak kontularitza eta legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, kudeaketa hobetzeko gomendioak luzatu eta Fundazioaren finantza egoera aztertzen du.

Legea betetzeari dagokionez, HKEEk uste du Fundazioak ez duela 2009ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia bete eta txostenean bertan zehaztu du iritzi hau hainbat alderdi eta ez-betetzeari dagokionez.

Honela, bada, HKEEk jakinarazi du 2009ko ekitaldiari dagokion aurrekontua ekitaldi horretako urrian onetsi zela, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legean ezarritakoarekiko atzerapenez.

Sarrerei dagokienez, HKEEk jakinarazi du matrikulako prezioak ez dituela inongo atalek onesten, egiteko hori Patronatuari dagokiola eta horiek zehazteko erabilitako prozeduraren ebidentziarik ere batere ez dago, Estatutuek agintzen duten moduan.

Langileen alorrak eragiten du erakundearen gastu arrunt gehiena eta besteak beste, ondoko salbuespen hauek azpimarratu behar ditugu:

- Fundazioak ez ditu berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioak bete administrazio eta zerbitzuetako 5 langileren kontratazioan eta 47 irakasleren kontratazioan.
- Merkataritzako 39 kontratutan kontrataturiko jardueren ezaugarriek kontratu mota hau erabiltzeko egokitasuna zalantzan jartzen dute.
- Fundazioak ez du beste erakunde batzuetan lanean diharduen irakasleen bateragarritasuna baimendu eta txostenean hainbat kasu zehatz azpimarratu dira.
- Hirurtekoak eta urteko ordainsari goerak ordaintzeko baimenen euskarri eza.

Kontratazioaren fiskalizazioan eta txostenean zehaztu diren publizitate eta lehia printzipioak ez betetzeagatik hainbat salbuespen alde batera, HKEEk azpimarratu du ez zela baimendu Fundazioarentzako eraikin baten obren exekuzio proiektua eta lan osagarriak idazteko lehia aurrekontuaren aldaketa, 18 milioi euro izatetik 42 milioi eurokoa izatera aldatu zena, horrek berekin zekarren ordainsarien igoyerarekin, gutxi gora-behera, 386 mila euroan garestitu zena.

Fundazioaren urteko kontuei dagokienez, HKEEren iritzira, egoki erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan 2009ko ekitaldiko jarduera ekonomikoa, finantza egoera eta eragiketen emaitza, txostenean bertan jaso diren hainbat akatsi dagokiena salbuetsita.

Kudeaketari dagokion atalean, hainbat irizpen eman dira molde juridikoari, matrikulen araberako sarrerei, finantza kontrolari, irakasleen estatutu ezari eta abarri dagokienez eta azken gomendioa luzatu da Euskal Herriko musika ikastegi gorenaren zerbitzu-emanaldiari fundazioaren figura bidez eusteko egokitasuna azter dadin.

Azkenik adierazi behar da gauzatutako finantza analisisian matrikulak eragindako diru-sarrerek guztizkoaren gainean % 3 eta % 4 bitartekoa egiten dutela eta honenbestez, Fundazioaren jarduera EAEn urteko finantzaketaren baitakoa dela.